

Europak BCSC aukeratu du zibersegurtasun enpresetan inbertsio fondo publiko-pribatua diseinatzeko

- Inbertsio fondoa 1.000 milio euroko izango da, European Investment Bank-ek (EIB) finantzatuko du eta European Cyber Security Organization (ECSO) erakundearen laguntza estrategikoa izango du.
- Munduko beste ekonomia batzuekiko mendekotasun teknologikoa murrizteko xedearekin, Europako zibersegurtasun sektorea bultzatzea du helburu.
- Erabaki horrek, Euskadi erreferente gisa kokatzen du Europako eskualdeen merkatuaren garapenean, eta bere gaitasun eta konpetentzia teknologikoak baliosten ditu.

BCSC-n Europako inbertsio fondo bat sortzeko lehen pausoa emango dugu eta horren helburuak hauek dira: Europako zibersegurtasun enpresetan inbertsioa bultzatzea, sektore estrategiko hori indartzea eta Europar Batasunak munduko beste ekonomia batzuekiko duen teknologia-mendekotasuna murriztea.

European Cybersecurity Investment Platform (ECIP) deituriko inbertsio fondoa publiko-privatuan 42 inbertitzaile daude eta, datozen bost urteetan, fondoak gutxienez 1.000 milioi euroko inbertsioa bereganatu nahi du. ECIP inbertsio fondoa ez da Next Generation Europe fondo publikoen ildo beretik joango, helburua desberdina izango da.

Proiektu honen erakunde sustatzaile gisa dugun parte-hartzeak bi garapen ditu. Alde batetik, etorkizuneko plataforma nola diseinatu zehaztuko duen azterketa tekniko baten sorkuntza bultzatuko dugu. Bestetik, aurreko horri esker, Euskadik teknologiaren arloan dituen gaitasunak eta eskumenak aldarrikatuz Europako beste herrialdeentzako merkatuaren garapenean erreferente bilakatu ahal izango gara.

Ikerketak [European Investment Bank](#) -en (EIB) finantziarioa, [European Cyber Security Organization -en](#)(ECSO) babes estrategikoa eta Europar Batzordearen partaidetza izango ditu

ECIP plataformarekin Europako zibersegurtasun-enpresen finantzaketa eta garapena hobetu nahi dira, besteak beste, Estatu Batuetako, Erresuma Batuko eta Israelgo konpainiekin lehiatzeko. Proiektua zibersegurtasunaren Europako sektorea indartzeko eta haren alde egiteko aukera historikoa da, eta erakundeek eta ekosistema teknologikoak partekatutako diagnostikotik sortu da. Bertan beste ekonomia batzuekiko mendekotasun teknologikoa murrizten lagunduko duen sektore zibernetiko indartsuagoa sortzeko beharra azaleratzen zen.

Europar zibersegurtasun merkatu konplexu eta zatikatua da, eta ezaugarriak inbertsio falta, bezero estrategikoen urritasuna eta posizionamendu komertzial ahula dira. Gabezia horien ondorioz, 2019an, Europako zibersegurtasun sektoreak, Estatu Batuetakoarekin alderatuta, 4.000 milioi euroko aldea izan zuen, eta lehiakortasun-defizit nabarmena Israelekin eta Txinarekin alderatuta. Defizit horiei buruzko gogoetak bultzatuta, ECSOk, BCSCren

lidergoarekin eta Europako Inbertsio Bankuaren eskutik, ECIP plataforma bultzatu du desberdintasun horiek zuzentzeko, nazioarteko inbertsioak sortzen ari diren enpresetara eta Europako zibersegurtasun ETE-etara erakartzeko, eta, hala, soluzio estrategikoak garatzeko.

Ekainaren 22an, hitzarmena sinatu zenean, gure zuzendaria den Javier Diéguez “oso harro agertu zen Basque CyberSecurity Centre-k proiektu horretan parte hartu zuelako” eta Euskadiren adibidea nabarmendu nahi izan zuen “Europako eskualdeek merkatua garatzeko eta nazioarteko lankidetzak publiko-pribatua lortzeko duten inizatiba estrategikoetan duten zereginean”. Bere hitzetan, proiektua “aukera historikoa izango da diferentzia markatzeko eta Europako zibersegurtasunaren lehiakortasun orokorra hobetzeko”.